# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia | Iruña, 2009ko abuztuaren 24a | 83. ZK.


**A U R K I B I D E A**

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**


—Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).

—Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (15. or.).

—Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina. (19. or.).

—Nafarroako Parlamentuaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina. (24. or.).

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Barañaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

Txosten exekutiboa edo laburpena (2. or.).

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Helburua (4. or.).

**III.** Norainokoa (5. or.).

**IV.** Iritzia (5. or.).

IV.1. Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra (5. or.).

IV.2. Legezkotasuna (5. or.).

IV.3. 2007ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (5. or.).

IV.4. Comptos Ganberak aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (6. or.).

**V.** 2006ko Kontu Orokorraren laburpena (7. or.).

V.1. Aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria (7. or.).

V.2. 2007ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua (7. or.).

V.3. 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza bateratua (8. or.).

V.4. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2007ko abenduaren 31n (9. or.).

**VI.** Iruzkinak eta gomendio orokorrak (10. or.).

VI.1. Administrazio-kontratazioa (10. or.).

VI.2. Langileen kontratazioa (10. or.).

VI.3. Inbentarioa eta ibilgetua (11. or.).

VI.4. Diru-sarrerak (11. or.).

VI.5. Gorabeherak (11. or.).

VI.6. Hirigintza (11. or.).

VI.7. Baraberri SL merkataritza-sozietatea (11. or.).

VI.8. Barañain Auditorioa Fundazioa(12. or.).

I. eranskina. Fundación Auditorio Barañáin/Barañain Auditorioa Fundazioa (13. or.).

II. eranskina. 2007ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

### TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENA

2008ko jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Barañaingo Udalaren kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Barañaingo udalerria Iruñekoaren mugakidea da; lurralde txikia du –1,40 km$^2$– eta biztanleak 22.379 dira.

Zerbitzuak emateko udalak bi patronatu sortu ditu: Lagunak udalaren kirol-zerbitzua eta Luis Morondo Musika Eskola. Udalak, era berean, fundazio bat sortu du arte eszenikoen zentroa edo auditorioa kudeatzeko.

Hona 2007ko datu adierazgarrienak:

• Udalak eta bere erakunde autonomoek, guztira, 187 langile dituzte.

• Gastuek, guztira, 16,13 milioi euro egiten dute; horietatik % 84 gastu arruntei dagokie.

• Ekitaldiko aitorturiko diru-sarrerek 15,36 milioi egiten dute; horietako % 54 dirulaguntzak dira, eta % 45 tributuen bidezkoak.

• Udalaren gastu arruntak proportzio handiagoan hazten dira dituen diru-sarrera arruntak baino.

• Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza doituan, 914.621,95 euroko defizita dago.

• Diruzaintzako gerakina, guztira, negatiboa da, 177.183,96 euroko gerakin negatiboa hain zuzen, eta gastu orokorretarakoa ere bai, 536.695,27 eurokoa zehazki.

Comptos Ganberaren iritziz, eta eginiko lana oinarri, udalaren 2007rako kontu orokorrak egoki islatzen du aurrekontuaren exekuzioa eta udalaren ondare-egoera; salbuespen bakarra da ez dela eguneratu ondasunen inbentarioa. Era berean, udalaren eta bere erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz gauzatu da.

Finantzen ikuspegitik, eta Comptos Ganbera behin eta berriz esaten ari den moduan, udalak mugatua du baliabide berekiak sortzeko gaitasuna. Etorkizunean bideragarritasun finantzarioa ziurtatze aldera, honakoak egin behar dira lehenbailehen:

a) Udalaren lehentasunezko premiei eta horiek finantzatzeko bideei buruzko proiekzio ekonomiko-finantzarioak.

b) Aplikatzekoa den presio fiskalari buruzko azterlanak.

c) Zerbitzuen kostuari eta herritarrengan duten eraginari buruzko analisiak.

d) Azterlanak, oinarrizkoak edo nahitaezkoak ez diren zerbitzuak emateari buruzko erabakiak hartu aurretik.

## I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak udalaren eta bere erakunde autonomoen –Lagunak eta Luis Morondo– kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Barañaingo Udalak 1,40 km2-ko azalera du. 22.379 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2007ko abenduaren 31n:

| Erakundea | Aitorturiko betebeharrak | Aitorturiko eskubideak | Langileak 2007-12-31n |
|---|---|---|---|
| Udala | 13.551.016,76 | 12.656.100,39 | 147 |
| Lagunak | 2.060.756,29 | 2.120.511,44 | 17 |
| Luis Morondo | 859.224,42 | 931.749,54 | 23 |
| **Bateratzearen doitzeak** | **-345.902,61** | **-343.837,44** | **-** |
| **Guztizkoa, bateratua** | **16.125.094,86** | **15.364.523,93** | **187** |

Udalak, 2004ko azaroan, Baraberri SL sozietate mugatua sortzea erabaki zuen. Sozietate horren kapital guztia udalarena da, eta eginkizuna du hirigintza-garapeneko zerbitzuak kudeatzea, Barañaingo Garapen Integralerako Zerbitzuaren barruan. Ez da egin oraindik sozietate horren eraketari buruzko eskritura publikorik, eta sozietateak jarduerarik ere ez du.

Udalak, 2003ko urtarrilaren 17an, eratu eta bere babespean ezarri zuen Barañaingo Auditorioa Fundazioa; haren xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa kudeatu eta administratzea. Ekitaldi honetan, 695.289 euroko diru-sarrerak erregistratu dira, eta 861.912 euroko gastuak; horrek esan nahi du 166.623 euroko defizita izan dela.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak.

2006ko ekitaldian Barañaingo Udalari aplikatzekoa izandako araubide juridikoa honako hau izan da, funtsean:

• Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

• Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.

• 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua onesten duena.

• Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea.

• Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

• Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

• Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

• Barañaingo Udalaren exekuzio-oinarriak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa, eta laugarrenean, kontu orokorrari, legezkotasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean jaso dugu 2007ko finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat, eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Bi eranskin ere badira: bata Barañain Auditorioa Fundazioaren egoera-orriari eta kontuari buruzkoa, eta bestea 2007ko ekitaldiko kontuei buruzko oroitidazkia, udalak egina.

Barañaingo Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Barañaingo Udalaren 2007ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinenetan, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den Barañaingo Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoek 2007an aurrera eramandako jardueran.

c) Barañaingo Udalaren eta haren mendeko erakunde autonomoen 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2006ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Barañaingo Udalaren kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Honako osagaiak dauzka:

• Udalaren beraren kontua eta udalaren erakunde autonomoena: Lagunak udal zerbitzua eta Luis Morondo Musika Eskola.

• Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta kontuhartzailetzaren txostena.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

• Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta diruzaintza-gerakina; denak ere udalarenak eta haren erakunde autonomoenak.

• Udalaren eta bere erakunde autonomoen egoera-balantzea.

• Udalaren eta bere erakunde autonomoen kontu bateratuak.

Bestalde, Barañain Auditoria Fundazioaren kontuak ez badira ere udalaren kontu orokorrean sartzen, txosten honen eranskin gisa jarri ditugu.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta bere erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarrizko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitatea eta barne-kontroleko alderdi nabarmenenak.

Txosten honetan daude udalaren eta haren mendeko erakundeen antolamendua eta barne-kontrola hobetzeko komenigarritzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

## IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Barañaingo Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2007ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardura, baita bere edukiarena ere, udalarena da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

### IV.1. UDALAREN 2007KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

Ondasunen inbentarioa 1992koa da, eta ez da eguneratu. Hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu egoera-balantzeko “Ibilgetua” izeneko ataleko saldoaren arrazoizkotasuna. Saldo hori, 2007ko abenduaren 31n, 24.332.706,44 eurokoa da.

Aipaturiko salbuespenaren ondorioarengatik izan ezik, udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, bere gastuen eta diru-sarreren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz.

### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2007an udalaren eta haren erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz egin dela.

### IV.3. 2007KO ABENDUAREN 31KO EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Behin betiko aurrekontu bateratua, 2007rako, 18,29 milioi eurokoa izan da. Aitorturiko betebeharrek 16,13 milioi euro egin dute, eta aitorturiko eskubideek 15,36 milioi euro. Gastu eta diru-sarreren betetze maila ehuneko 88koa eta 84koa izan da, hurrenez hurren.

Gastuei dagokienez, langile-gastuek gastu guztien ehuneko 45 egiten dute. Gastu arrunten multzoa, 13,61 milioi, gastu guztien ehuneko 84 da.

Diru-sarreren arloan, dirulaguntzen mendekotasuna ehuneko 54koa da ia, eta ehuneko hori berdintsua izaten ari da azkeneko ekitaldiotan. Tributu bidezko diru-sarrerak, 7 milioi euro, diru-sarrera guztien ehuneko 45 dira.

Ekitaldiak, aurrekontuko emaitza doituan, 914.621 euroko defizita du. Emaitza, 2006an, positiboa izan zen –1,6 milioi euro –, nahiz eta kontuan hartu behar den urte horretan ezohiko diru-sarrera batzuk izan zirela, ia milioi bat eurokoak,

Iruñerriko Mankomunitateak emandako taxi lizentzia berrien ondorioz.

Diruzaintzako gerakina, era berean, negatiboa da, 177.183,96 euro hain zuzen; aurreko urtean, aldiz, positiboa izan zen, 617.194,15 euro zehazki. Kopuru horren kalkuluari berdin aplika dakioke lehen esan duguna, hau da, taxi lizentzien ondoriozko diru-sarrerena.

Guztizko gerakinetik kentzen badira finantzaketa atxikia duten gastuak, lortzen dugu gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, eta eragile horrek neurtzen duena da zer gaitasun dagoen hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko. 2007an, emaitza negatiboa da, eta 536.695,27 euro egiten du.

Emaitza negatiboak izanez gero diruzaintzako gerakinean, udalak, Foru Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 230. artikuluarekin bat, behar diren neurriak hartu behar ditu emaitza negatibo hori konpentsatzeko, eta hala adierazten du udaleko kontu-hartzaileak txosten honekin batera doan oroitidazkian.

Zorpetzea, 2007ko abenduaren 31n, 2,32 milioikoa da. Zorpetze honen euskarriak dira, batetik, epe luzeko kreditu-kontu bat, zeinetatik 1,54 milioi euro xedatu baitira, eta, bestetik, diruzaintzako kreditu bat, eta horretatik 0,78 milioi euro xedatu dira.

Zorpetze-maila, 2007an, % 1,78koa izan da , eta zorpetze-muga, berriz, % 4,7koa.

Aurrezki garbia ehuneko 2,92koa izan da; horrek esan nahi du diru-sarrera arruntak handiagoak izan direla gastu arruntak eta finantza-gastuak baino: guztira, 415.380 euro gehiago egin dute.

Azken batean, 2006ko parentesiaren ondotik –taxi lizentzien ondoriozko aparteko diru-sarrerak–, udalaren finantza-egoerak lehendik agertutako joerari eusten dio, 2004ko ekitalditik aurrera agertutakoari hain zuzen: gastu arruntak gehiago hazten dira diru-sarrera arruntak baino, aurrekontuaren emaitza defizitarioa da eta diruzaintzako gerakina negatiboa.

## IV.4. COMPTOS GANBERAK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Txosten honen VI. atalean adierazten den bezala, oraindik indarrean diraute honako gomendio muntadun hauek:

• *Comptos Ganberak behin eta berriz adierazi duenez, azterlanak egin eta neurri egokiak aplikatu beharra dauzka udalak, ziurtatzeko, horrela, bere bideragarritasun ekonomikoa eta baliabide berekiak sortzeko gaitasuna.*

• *Udal inbentarioa eguneratu eta onetsi behar da, 1992an egindakoa ez baita eguneratu.*

• *Erakunde autonomoei dagokienez, udalak osatu eta eguneratu egin behar ditu erakundeon jarduera kontrolatzeko eta zaintzeko dituen egiazko mekanismoak, eta behar diren prozedurak diseinatu behar ditu eginkizun hori benetan gauzatu dadin.*

• *Behin betiko onetsi behar dira ordenantza fiskalak, zerga-tasak eta prezio publikoak, legediak agindutakoarekin bat.*

• *Baraberri SL merkataritza-sozietatearen nondik norakoa zehaztu edo berraztertu egin behar da; sozietatea 2004an eratu eta oraindik ez da eraketa horren eskritura publikorik egin eta inongo jarduerarik ere ez du izan.*

## V.1. AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA.

### Aurrekontu bateratuaren likidazioa (eurotan). 2007ko ekitaldia.

| Azalpena | Hasierako aurreikuspena | Aldaketa Gehik. (murrizk.) | Behin betiko aurreik. | Aitorturiko eskubideak | Kitaturiko eskubideak | Kobratzeko dagoena | Beteta-koa (%) | Aitortu-rikoaren gain. % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 3.425.000,00 | 0,00 | 3.425.000,00 | 3.301.910,54 | 3.157.641,67 | 144.268,87 | % 96,41 | % 21,49 |
| 2. Zeharkako zergak | 725.000,00 | 0,00 | 725.000,00 | 305.968,29 | 283.898,53 | 22.069,76 | % 42,20 | % 1,99 |
| 3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak. | 3.325.701,00 | 0,00 | 3.325.701,00 | 3.387.153,01 | 3.196.780,32 | 190.372,69 | % 101,85 | % 22,05 |
| 4. Ohiko transf. | 7.152.610,00 | 0,00 | 7.152.610,00 | 7.151.757,25 | 6.616.532,13 | 535.225,12 | % 99,99 | % 46,55 |
| 5. Ondarezko diru-sarrerak | 81.900,00 | 0,00 | 81.900,00 | 60.326,21 | 51.729,44 | 8.596,77 | % 73,66 | % 0,39 |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | 750.000,00 | 0,00 | 750.000,00 | 24.897,23 | 24.897,23 | 0,00 | % 3,32 | % 0,16 |
| 7. Kapital transf. | 1.109.600,00 | 150.000,00 | 1.259.600,00 | 1.132.511,40 | 340.274,97 | 792.236,43 | % 89,91 | % 7,37 |
| 8. Finantza-aktiboak | 0,00 | 34.075,00 | 34.075,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | % 0,00 | % 0,00 |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 1.533.834,00 | 0,00 | 1.533.834,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | % 0,00 | % 0,00 |
| | **18.103.645,00** | **184.075,00** | **18.287.720,00** | **15.364.523,93** | **13.671.754,29** | **1.692.769,64** | % **84,02** | % **100,00** |

| Azalpena | Hasierako aurreikuspena | Aldaketa Gehik. (murrizk.) | Behin betiko aurreik. | Aitorturiko betebeharrak | Likidatutako betebeharrak | Egiteko dauden ordainketak | Beteta-koa (%) | Aitortu-rikoaren gain. % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 7.454.702,00 | -31.700,00 | 7.423.002,00 | 7.283.304,99 | 7.017.506,62 | 265.798,37 | % 98,12% | % 45,17 |
| 2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak | 5.491.928,00 | 50.675,00 | 5.542.603,00 | 5.092.368,11 | 4.115.089,54 | 977.278,57 | % 91,88% | % 31,58 |
| 3. Finantza-gastuak | 126.100,00 | 0,00 | 126.100,00 | 72.209,30 | 72.209,30 | 0,00 | % 57,26% | % 0,45 |
| 4. Transferentzia arruntak | 1.407.680,00 | 33.100,00 | 1.440.780,00 | 1.163.303,15 | 974.766,21 | 188.536,94 | % 80,74% | % 7,21 |
| 6. Inbertsio errealak | 3.170.585,00 | 380.000,00 | 3.550.585,00 | 2.153.746,20 | 1.067.031,95 | 1.086.714,25 | % 60,66% | % 13,36 |
| 7. Kapital transf. | 272.100,00 | -248.000,00 | 24.100,00 | 179.613,11 | 137.120,17 | 42.492,94 | % 745,28% | % 1,11 |
| 8. Finantza-aktiboak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | % 0,00% | % 0,00 |
| 9. Finantza-pasiboak | 180.550,00 | 0,00 | 180.550,00 | 180.550,00 | 180.550,00 | 0,00 | % 100,00% | % 1,12 |
| | **18.103.645,00** | **184.075,00** | **18.287.720,00** | **16.125.094,86** | **13.564.273,79** | **2.560.821,07** | % **88,17%** | % **100,00** |

V.2. 2007KO ABENDUAREN 31KO EGOERAREN BALANTZE BATERATUA.

# AKTIBOA

| | AZALPENA | Zenbatekoa itxiera-urtean |
|---|---|---|
| A | IBILGETUA | |
| 1 | Ibilgetu materiala | 19.158.542,91 |
| 2 | Ibilgetu ez-materiala | 181.346,29 |
| 3 | Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak | 4.992.817,24 |
| 4 | Herri ondasunak | 0,00 |
| 5 | Ibilgetu finantzarioa | 0,00 |
| B | ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK | |
| 6 | Kitatu beharreko gastuak | 0,00 |
| C | ZIRKULATZAILEA | |
| 7 | Izakinak | 0,00 |
| 8 | Zordunak | 2.906.906,17 |
| 9 | Kontu finantzarioak | 1.748.126,74 |
| 10 | Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak | 0,00 |
| 11 | Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera) | 0,00 |
| | **AKTIBOA, GUZTIRA** | **28.987.739,35** |

# PASIBOA

| | AZALPENA | Zenbatekoa itxiera-urtean |
|---|---|---|
| A | FUNTS BEREKIAK | |
| 1 | Ondarea eta erreserbak | 15.149.792,74 |
| 2 | Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina) | 315.441,00 |
| 3 | Kapital-dirulaguntzak | 7.186.713,63 |
| B | ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK | |
| 4 | Hornidurak | 0,00 |
| C | EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK | |
| 4 | Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak | 1.985.559,33 |
| D | EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK | |
| 5 | Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak | 4.350.153,34 |
| 6 | Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak | 79,31 |
| | **PASIBOA, GUZTIRA** | **28.987.739,35** |

V.3. 2007KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA BATERATUA.

| Azalpena | Aurreko ekitaldia | Itxiera-ekitaldia |
|---|---|---|
| Aitorturiko eskubide garbiak | 16.279.339,32 | 15.364.523,93 |
| Aitorturiko betebehar garbiak | 14.740.715,28 | 16.125.094,86 |
| **Aurrekontu-emaitza** | **1.538.624,04** | **-760.570,93** |
| **Doikuntzak** | | |
| Finantzaketaren desbideraketa positiboa | 206.090,17 | 378.479,63 |
| Finantzazioaren desbideraketa negatiboa | 189.406,79 | 213.981,15 |
| Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak | 91.078,49 | 10.447,46 |
| **Aurrekontu emaitza doitua** | **1.613.019,15** | **-914.621,95** |

V.4. DIRUZAINTZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2007KO ABENDUAREN 31N.

| Azalpena | Aurreko ekitaldia | Itxiera-ekitaldia | Aldea (%) |
|---|---|---|---|
| **(+) Kobratzeko dauden eskubideak** | **2.357.888,45** | **2.408.805,64** | **% 2,16** |
| (+) Diru-sarreren aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua | 2.181.235,08 | 1.691.962,06 | % -22,43 |
| (+) Diru-sarreren aurrekontua: itxitako ekitaldiak | 698.291,68 | 1.141.074,34 | % 63,41 |
| (+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak | 46.489,51 | 73.869,77 | % 58,90 |
| (-) Dirubilketa zaileko eskubideak | -567.377,73 | -498.021,22 | % -12,22 |
| (-) Izaniko diru-sarrerak, behin betikoz aplikatzeko daudenak | -750,09 | -79,31 | % -89,43 |
| **(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak** | **3.817.054,85** | **4.329.884,82** | **% 13,44** |
| (+) Gastuen aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua | 1.960.707,77 | 2.560.821,07 | % 30,61 |
| (+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak | 124.955,44 | 65.923,50 | % -47,24 |
| (+) Diru-sarreren aurrekontua | 1.718,15 | 56,46 | % -96,71 |
| (+) Aurrekontuz kanpoko gastuak | 1.749.364,91 | 1.723.352,31 | % -1,49 |
| (-) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak | -19.691,42 | -20.268,52 | % 2,93 |
| **(+) Diruzaintzako funts likidoak** | **2.057.392,23** | **1.727.858,22** | **% -16,02** |
| **(+) Finantziazio-desbideraketa metatu negatiboak** | **18.968,32** | **16.037,00** | |
| **= Diruzaintzako gerakina, guztira** | **617.194,15** | **-177.183,96** | **% -128,71** |
| Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina | 0,00 | 359.511,31 | 0 |
| Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta | | | |
| Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina | 617.194,15 | -536.695,27 | % -186,96 |

## VI. IRUZKINAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio eta iruzkin nagusiak emango ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

• *Aurrekontua legediak ezarritako epeetan egin eta onetsi behar da, kudeaketarako oinarrizko lanabesa izan dadin.*

• *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok kontu-hartzailetzaren edo barne kontrolaren menpe egon behar du.*

• *Prozedurak ezarri behar dira ahalbidetzeko ezen kreditu-aldaketen izapidetzea, onestea eta argitaratzea, bai eta, halakorik balego, kasuko argitalpenak ere, kasuan kasuko ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen bukatuko direla.*

### VI.2 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehakaturik azalduko ditugu, alde batetik, ondasun arruntak erosteari eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestetik, inbertsioak.

**VI.2.1. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan**

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

| | Kontratu-mota | Prozedura | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| Udal-ikastetxeetako garbiketa-zerbitzua | Laguntzarako kontratua | Irekia | 457.152 |
| Baragazte gaztediarentzako baliabide-zentroan gauzatzen diren programak | Laguntzarako kontratua | Irekia | 196.322 |

Lagina aztertuta, ondorioztapena da aztertutako espedientea legeak eskatzen duenari jarraikiz izapidetu dela.

Halaber, gastuen arlo honetako kontusail nagusien azterketa egin dugu, eta egiaztatu dugu aplikatzekoak diren arauen araberakoa dela.

**VI.2.2. Inbertsioak**

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

| | Kontratu-mota | Prozedura | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| Lagunak zerbitzu publikoaren kanpoko igerilekuak eraberritzeko proiektua eta obra | Obra | Negoziatua publizitatearekin | 329.341 |
| Alaitz ikastetxe publikoaren estalkia iragazgaiztea (2. zatia) | Obra | Negoziatua publizitatearekin | 44.152 |
| Barañaingo haur eskola berriaren ekipamendua | Hornidura | Irekia | 115.050 |

Aztertutako laginetik ondorioztatzen da hobetu beharreko honako puntu hauek daudela:

• Lagunak udal zerbitzuko obrei dagokienez, bilkura berean onetsi ziren obra-bukaerako ziurtagiria eta lanak handitzen zituen kontratu-aldaketa bat; lanok, beraz, kontratuaren aldaketa onetsi aurretik egin ziren (zenbatekoa, 18.586,36 euro). Hori dela-eta, udaleko kontu-hartzaileak eragozpen-ohar bat egin zuen.

• Obra espedienteetan ez da ageri zuinketa-aktarik, ezta zuinketaren egiaztapen-aktarik.

• Bi espedientetan, bermea eratua dago kontratua formalizatu ondoren.

Gainera, egiaztatu da exekutatu eta amaitu direla “Haur eskolako obrak”; espediente horretako adjudikazioa 2006eko ekitaldian berrikusi zen. Obra horiek 2007an amaitu ziren, eta udaleko kontu-hartzaileak, horiei dagokienez, eragozpen-ohar erlatibo bat egin zuen, adieraziz ezen kontratuan jaso gabe zeuden zenbait lan onetsi eta ordaindu zirela obra-bukaerako ziurtagiriarekin batera, eta ez zela egin, aldez aurretik, kontratuan egin beharreko aldaketa (zenbatekoa, 16.877,05 euro).

Beraz, amaitzeko, esan dezakegu, udalak, oro har, kontratuen arloko araudia errespetatzen badu ere, bete beharra dauzkala aurreko lerrokadetan aipatutako legezko alderdiak, bereziki obra-kontratuetako aldaketen izapidetze egokiari dagozkionak.

## VI.3 INBENTARIOA ETA IBILGETUA

• *Udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, 1992an eginikoa ez baitzen onetsia izan, eta ondoren ere ez baita gaurkotu.*

• *Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatzea, ibilgetuari buruzko dokumentazioa artxibatzeko eta altak eta bajak kontabilizatzeko prozedurak definituz eta ezarriz, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-irizpideen arabera.*

• *Udal ondasunen eskrituratze eta erregistratze prozesua osatzea.*

## VI.4 DIRU-SARRERAK

• Behin betiko onetsi behar dira ordenantza fiskalak, zerga-tasak eta prezio publikoak, Foru Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak agindutakoarekin bat.

## VI.5 GORABEHERAK

Udala, gaur egun, Administrazioarekiko auzietako zenbait prozeduratan sartuta dago; horien ebazpenek, udalaren esanetan, ez omen dezakete eragin handirik izan udalaren kontuetan. Hala ere, 2008an, epai irmo baten ondorioz, udalak ordaindu behar izan ditu 59.483 euro gehi legezko interesak.

## VI.6. HIRIGINTZA

Barañaingo Udalak duen planeamendu-araua da 1990eko abenduan onetsi zuen hirigintza antolamenduko plan orokorra. Plan hori ia erabat beteta dago.

Orain arte, udalak ez du inongo prozedurarik egin Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak ezarritakora egokitzeko.

Gomendioak:

• *Hirigintza-planeamendua, beharrezkoa den alderdietan, egokitu egin behar da 35/2002 Foru Legearen zehaztapenetara.*

• *Lurzoruaren Udal Ondarea eratu eta kudeatu behar da udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik; sarrerak eta irteerak erregistratu egin behar dira, eta ondasunok indarreko araudian ezarritako xedeetarako erabili direla frogatu behar da.*

## VI.7. BARABERRI SL MERKATARITZA-SOZIETATEA

Udalak, 2004ko azaroan, Baraberri SL sozietate mugatua sortzea erabaki zuen; sozietate horren kapital guztia udalarena da, eta eginkizuna du hirigintza-garapeneko zerbitzuak kudeatzea, Barañaingo Garapen Integralerako Zerbitzuaren barruan (NAO argitaratu zen, 2005eko 5. zenbakian, urtarrilaren 12koan, hain zuzen).

Sozietate horrek, udaleko kontu-hartzailetzearen informazioaren arabera, eratzea onetsi zenetik ez du jarduerarik izan. Hala ere, udalak, 2006an, hasierako diru-ekarpen bat egin zuen, 9.000 eurokoa, sozietate horren kapital sozialerako; diru kopuru hori diruzaintzako kontu berezi batean gordailatuta dago.

Txosten hau egiten ari garelarik, ez da egin sozietatearen eraketari buruzko eskritura publikorik, eta, logikoa denez, ez da Merkataritza Erregistroan ageri.

• Gure gomendioa da Baraberri SL merkataritza-sozietatearen egoera argitzea.

VI.8. BARAÑAIN AUDITORIOA FUNDAZIOA

Udalak, 2003ko urtarrilaren 17an, eratu eta bere babespean ezarri zuen Fundación Auditorio Barañáin / Barañain Auditorioa Fundazioa; haren xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa –udalaren titulartasunekoa– kudeatu eta administratzea.

2007ko ekitaldian, udalak 300.000 euro jarri zituen funtzionamendurako eta 147.000 euro fundazioaren hornidurarako.

2007ko ekitaldiko kontu laburtuak –txosten honen I. eranskin gisa doaz– kanpoko profesional batek berrikusi ditu, modu mugatuan; profesional horrek arreta jarri zuen, funtsean, kontratazioen inguruko gaietan eta urteko kontuen aurkezpenarekin zerikusia zutenetan.

Ekitaldi honetan, fundazioak 695.289 euroko diru-sarerrak izan ditu, eta 861.912 euroko gastuak; beraz, 166.623 euroko defizita izan du.

Txosten hau idazten ari ginela, udalak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu dute, zeinaren bidez Gobernuak konpromisoa hartu baitu guztira 100.000 euroko ekarpena egiteko 2009an, auditorioaren jarduerak finantzatzeko.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 5ean.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## I. ERANSKINA. FUNDACIÓN AUDITORIO BARAÑÁIN/BARAÑAIN AUDITORIOA FUNDAZIOA

Egoera-balantze laburtua, 2007ko abenduaren 31n (eurotan, hamarrekorik gabe emanak)

### AKTIBOA

| | 2007-12-31 | 2006-12-31 |
|---|---|---|
| **Ibilgetua** | **261.030** | **298.527** |
| Ibilgetu ez-materiala | 173.795 | 203.636 |
| Ibilgetu materiala | 87.235 | 94.891 |
| **Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak** | **10.172** | **14.359** |
| **Aktibo zirkulatzailea** | **96.095** | **90.826** |
| Erabiltzaileak eta beste zordun batzuk | 76.009 | 87.327 |
| Diruzaintza | 20.086 | 3.499 |
| **Aktiboa, guztira** | **367.297** | **403.712** |

### PASIBOA

| | 2007-12-31 | 2006-12-31 |
|---|---|---|
| **Norberaren fondoak** | **8.961** | **28.584** |
| Fundazioaren zuzkidura | 736.250 | 589.250 |
| Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak | -560.666 | -451.707 |
| Ekitaldiko soberakina | -166.623 | -108.959 |
| **Epe luzeko hartzekodunak** | **109.456** | **151.826** |
| Kreditu entitateekiko zorrak | 109.456 | 151.826 |
| **Pasibo zirkulatzailea** | **248.880** | **223.302** |
| Kreditu entitateekiko zorrak | 124.954 | 81.767 |
| Merkataritzako hartzekodunak | 61.916 | 111.069 |
| Merkataritzaz kanpoko beste zor batzuk | 62.010 | 30.466 |
| **Pasiboa, guztira** | **367.297** | **403.712** |

## 2007ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiaren emaitza-kontu laburtua
## (eurotan, hamarrekorik gabe emanak)

| GASTUAK | 2007 | 2006 | DIRU-SARRERAK | 2007 | 2006 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ustiapeneko kontsumoa | 25.127 | 20.001 | Udalak bere jardueraren ondorioz dituen diru-sarrerak: dirulaguntzak, dohain., legat. | 326.326 | 191.179 |
| Langile-gastuak | 345.068 | 263.684 | Salmentak eta merkataritza jardueraren ondoriozko beste diru-sarrera arrunt batzuk | 207.146 | 223.050 |
| Ibilgetuko amortizazioetarako zuzkidurak | 53.522 | 48.179 | Bestelako diru-sarrerak | 152.280 | 152.674 |
| Beste gastu batzuk | 424.923 | 443.569 | | | |
| Jardueraren hornidurен aldaketa | - | - | | | |
| | **848.640** | **775.433** | | **685.652** | **566.903** |
| | | | Ustiapeneko emaitza negatiboak | 162.988 | 208.530 |
| Diru-sarrera finantzarioak | 279 | 9 | Gastu finatzarioak | 9.061 | 15.770 |
| | | | Finantza-emaitza positiboak | 8.782 | 15.761 |
| | | | Jarduera arrunten emaitza negatiboak | 171.770 | 224.291 |
| Aparteko diru-sarrerak | 9.358 | 115.332 | Ezohiko gastuak | 4.211 | - |
| Ez-ohiko emaitza positiboak | 5.147 | 115.332 | Ez-ohiko emaitza negatiboak | - | - |
| | | | Zerga aurreko galerak | 166.623 | 108.959 |
| Sozietateen gaineko zerga | | | | | |
| | | | Ekitaldiko soberakin negatiboa (desaurrezkia) | 166.623 | 108.959 |

# Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Kontseiluari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (15. or.).

**II.** Helburua eta norainokoa (15. or.).

**III.** Iritzia (16. or.).

III.1. 2008ko aurrekontuaren betetze mailari buruz (16. or.).

III.2. Ondare-egoera (16. or.).

III.3. Legezkotasuna (16. or.).

**IV.** Finantza-egoeren orriak (17. or.).

IV.1. 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa (17. or.).

IV.2. 2008ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (17. or.).

IV.3. Emaitzen kontua eta emaitzen banaketa (18. or.).

### I. SARRERA

Nafarroako Kontseilua martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen bitartez sortu zen; lege hori, berriz, abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legearen eta abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen bidez aldatu zen. Nafarroako Kontseiluak 2000. urtean ekin zion bere jardunari.

2005ean, Nafarroako Kontseiluak bere aurrekontua eta kontuak modu independentean aurkeztu zituen, bere kontabilitatearekin.

2008ko plantilla organikoan bi langile daude: legelari bat, zerbitzu eginkizunetan, eta idazkari bat, aldi baterako kontratuarekin.

Nominak Nafarroako Gobernuak prestatu eta ordaintzen ditu, eta Kontseiluari egindako transferentzia arrunt gisa erregistratzen ditu zenbatekoak. Kontseiluak, bere aldetik, zenbateko hori langileria gastu eta diru-sarrera arrunt gisa kontabilizatzen du bere aurrekontuan.

Aurrekontuak 589.417 euro egiten du. Gastuen betetzea 330.323 eurokoa da eta diru-sarrerena, berriz, 500.038 eurokoa. Gastuen eta diru-sarreren betetze-mailak ehuneko 56 eta ehuneko 85 dira, hurrenez hurren.

2008ko ekitaldiaren exekuzioaren emaitza gisa, superabit bat sortu zen, eta Foru Ogasunari 169.715 euro itzuli zitzaizkion.

Nafarroako Kontseiluak, kontsulta eginkizunak betez, 51 irizpen eman ditu ekitaldian, eta 18 bilkura egin.

Azterketa-lana 2008ko apirilean egin zuten auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu Nafarroako Kontseiluko langileen laguntza, lan hau egitea erraztu duelako.

### II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren 2008ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena sartu zen 2008ko jarduketa programan.

Lan horrek ondoko helburuak ditu:

- 1. helburua. Egiaztatzea Nafarroako Kontseiluaren gastuen eta diru-sarreren aurrekontuaren betetzeak 2008ko ekitaldian egindako eragiketak behar bezala islatzen ote dituen.
- 2. helburua. Egiaztatzea aurkezturiko finantzen egoera-orriek modu egokian islatzen ote duten zein den 2008ko abenduaren 31ko ondare-egoera, baita eragiketen emaitzak ere.
- 3. helburua. Egiaztatzea fiskalizazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa zaion legezkotasun-printzipioa bete ote den.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko sektore publikoko auditoriako printzipioei eta arauei jarraituz, zeinak Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu. Lanean, halaber, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu, inguruabarren arabera.

**III. IRITZIA**

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Nafarroako Kontseiluaren 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-orriak eta egoera-orri finantzarioak aztertu ditugu. Kontseiluaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako IV. atalean jaso dugu horien egoera.

Eginiko azterketatik eta berrikusitako laginetik honako iritzi hau ondorioztatzen dugu:

III.1. 2008KO AURREKONTUAREN BETETZE MAILARI BURUZ.

2008ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala islatzen du ekitaldi horretan egindako jarduera.

III.2. ONDARE-EGOERA

Egoera-balantzeak eta emaitzen kontuak nahiko ongi agertzen dute finantza eta ondare-egoera 2008ko abenduaren 31n.

III.3. LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Kontseiluak 2008ko ekitaldian izan duen ekonomia- eta finantza-jarduera legezkotasun-printzipioaren araberakoa izan da.

## IV. FINANTZA-EGOEREN ORRIAK

### IV.1. 2008KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA.

Gastuen kapitulu ekonomikoen arabera

| | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Ordaindutakoa |
|---|---|---|---|---|
| 1. Langile gastuak | 181.304 | 181.304 | 126.125 | 126.125 |
| 2. Ondasun arruntak eta | 369.113 | 369.113 | 202.918 | 202.918 |
| 6. Inbertsio errealak | 39.000 | 39.000 | 1.280 | 1.280 |
| **Gastuak, guztira** | **589.417** | **589.417** | **330.323** | **330.323** |

Diru-sarreren kapitulu ekonomikoen arabera

| | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko eskubideak | Kobratutakoa |
|---|---|---|---|---|
| 4. Transferentzia arruntak | 550.415 | 550.415 | 495.237 | 495.237 |
| 5. Ondarezko diru-sarrerak | 2 | 2 | 3.521 | 3.521 |
| 7. Kapital-transferentziak | 39.000 | 39.000 | 1.280 | 1.280 |
| **Diru-sarrerak, guztira** | **589.417** | **589.417** | **500.038** | **500.038** |

### IV.2. 2008KO ABENDUAREN 31KO EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA

| Kontzeptua | 2007 | 2008 |
|---|---|---|
| **IBILGETUA** | **67.696,36** | **68.976,36** |
| **IBILGETU MATERIALA** | **58.610,60** | **59.890,60** |
| Altzariak eta tresneria | 14.131,72 | 14.131,72 |
| Informazioa prozesatzeko tresneria | 17.579,68 | 18.859,68 |
| Irudi korporatiboa | 5.590,00 | 5.590,00 |
| Bestelako ibilgetu materialak | 21.309,20 | 21.309,20 |
| **IBILGETU EZ-MATERIALA** | **9.085,76** | **9.085,76** |
| Aplikazio informatikoak | 9.085,76 | 9.085,76 |
| **AKTIBO IBILKORRA** | **193.516,44** | **169.714,86** |
| **DIRUZAINTZA** | **193.516,44** | **169.714,86** |
| Bankuak eta kreditu-erakundeak | 193.516,44 | 169.714,86 |
| **AKTIBOA, GUZTIRA** | **261.212,80** | **238.691,22** |

PASIBOA

| Kontzeptua | 2007 | 2008 |
|---|---|---|
| **FUNTS BEREKIAK** | **67.696,36** | **68.976,36** |
| Ondarea | 67.696.36 | 68.976,36 |
| **EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK** | **193.516,44** | **169.714,86** |
| Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kreditu itzulketa dela eta | 193.516,44 | 169.714,86 |
| **PASIBOA, GUZTIRA** | **261.212,80** | **238.691,22** |

IV.3. EMAITZEN KONTUA ETA EMAITZEN BANAKETA

2008ko ekitaldiko emaitza arrunten kontua.

| | ZOR | HARTZEKOA | |
|---|---|---|---|
| 126.124,58 | Langile-gastuak | Diru-sarrera finantzarioak | 3.521,41 |
| 202.918,55 | Kanpoko lanak, hornikuntzak eta zerbitzuak | Transferentzia arruntak | 495.236,58 |
| | | Kapital-transferentziak | 1.280,00 |
| 170.994,86 | **Aurrezkia** (emaitza positiboa) | | |
| **500.037,99** | **Guztira** | **Guztira** | **500.037,99** |

Emaitza doitua

| | ZOR | HARTZEKOA | |
|---|---|---|---|
| | Ekonomia- eta ondare-emaitza | Ondarea (inbertsio garbi aktibatuak) | 1.280,00 |
| | | | |
| | | **Ekonomia eta ondare-emaitza doitua** | 169.714,86 |
| | **Guztira** | **Guztira** | **170.994,86** |

2008ko ekitaldiko emaitzen banaketa

| | ZOR | HARTZEKOA | |
|---|---|---|---|
| | Ekonomia eta ondare-emaitza doitua | Foru Ogasun publikoa, kreditu itzulketakc hartzekoduna | 169.714,86 |
| **6** | **Guztira** | **Guztira** | **169.714,86** |

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

# Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Arartekoaren kontu orokorrari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (19. or.).

I.1. Arartekoaren eginkizuna eta langileria (19. or.).

I.2. Araubide ekonomiko eta kontabilitatekoa (19. or.).

I.3. Aplikatzekoa den araudia (20. or.).

**II.** Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (20. or.).

**III.** Iritzia (20. or.).

III.1. 2008ko ekitaldiko kontu orokorra dela-eta (20. or.).

III.2. Legezkotasuna (20. or.).

**IV.** Finantza-egoeren orriak (21. or.).

IV.1. 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa (21. or.).

IV.2. 2008ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (22. or.).

IV.3. 2008ko abenduaren 31ko emaitzen kontua (23. or.).

### I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraikiz, Comptos Ganberak egin du arartekoaren 2008ko kontuen erregulartasunaren fiskalizazioa. Fiskalizazio hori Comptos Ganberak 2009rako onetsitako jarduera programan sartu zen.

Azterketa-lana 2009ko apirilean egin zuten auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu arartekoaren bulegoko langileek lan hau egitean emaniko laguntza.

#### I.1. ARARTEKOAREN EGINKIZUNA ETA LANGILERIA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta askatasunak defenditzeko eta hobeki babesteko. Herritarrak Administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean babestea izanen du eginkizun nagusi.

Arartekoa Nafarroako Parlamentuak hautatu eta izendatzen du, eta egindako zuzemenen berri ematen dio urtero erakunde horri. Egungo titularra 2007ko martxoaren 22an izendatu zuten.

Askatasunez izendatu eta kargutik kenduko ditu bere eginkizunak betetzeko behar dituen aholkulariak eta konfiantzazko langileak –2008an guztira, sei–, eta langile horiek Nafarroako Parlamentuko konfiantzazko langileen araubideari lotzen zaizkio.

Arartekoaren gainerako langileak Nafarroako Parlamentuko plantillari dagozkio, eta honakoak izan dira 2008ko ekitaldian: administrazio kudeaketako teknikari bat, hiru administrari eta gelazain bat.

#### I.2. ARAUBIDE EKONOMIKO ETA KONTABILITATEKOA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa kontabilitaterako, kontu-hartzailetzarako, gastuak baimentzeko, kontratazioko eta ondasun eta eskubideak eskuratzeko Nafarroako Parlamentuak duen araubide beraren mende dago; halaber, kontabilitate publikoaren araubidearen pean dago.

Arartekoaren aurrekontu proiektua Nafarroako aurrekontu orokorretan sartzen da, eta bere kontuak Nafarroako kontu orokorren parte izaten dira.

Honakoak dira Arartekoaren kontuen osagaiak: egoera-balantzea, aurrekontuaren likidazio-egoera, ekonomi eta ondare emaitzako kontua eta oroitidazkia.

Arartekoaren diru-sarrera guztien jatorria Nafarroako Gobernuaren transferentziak dira, hala arruntak nola kapital transferentziak.

Funtzionamendu gastuak finantzatzeko Nafarroako Gobernutik 2008an jasotako transferentzia arruntek 1.085.135 euro egiten dute. Horietatik 260.887 euro Foru Komunitateko Diruzaintzara itzuli dira.

I.3. APLIKATZEKOA DEN ARAUDIA

Arartekoari 2008an aplikagarri zaion araudia ondoko lege eta erregelamenduez osatuta dago:

• Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea, martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legeak eta otsailaren 21eko 3/2008 Foru Legeak aldatua.

• Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamendu Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuak 2005eko azaroaren 23an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

• Kontabilitate plana, Parlamentuko Mahaiak 1994ko abenduaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

## II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Fiskalizazio lanaren helburuak hauexek dira:

• Egiaztatzea erakundearen kontuek zehatz islatzen dituztela 2008ko abenduaren 31ko finantza-egoera, 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren exekuzioa eta erakundeak urte horretan izaniko jardueren emaitza; hori dena, betiere, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate printzipioekin bat.

• Egiaztatzea legedia bete dela 2008an zehar funts publikoen kudeaketan.

Fiskalizazioaren norainokoa arartekoaren kontu orokorreko 2008ko ekitaldiko egoera-orriek ezarri dute, arartekoak bere ardurapean eginikoak baitira.

Beharrezkotzat jo diren probak eta prozedurak gauzatu dira fiskalizazio lanaren helburuen gainean behar adina froga lortzeko.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Estatuko kanpo kontroleko organo publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoriako printzipio eta arauak" aplikatu dira, bai eta Nafarroako Comptos Ganberako fiskalizazio-eskuliburuan jasotako prozedura eta programak.

## III. IRITZIA

2008ko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren erregulartasunaren fiskalizazioa eginda, hona gure iritzia:

III.1. 2008KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA DELA-ETA

Arartekoaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorrak modu arrazoizkoan islatzen ditu 2008ko abenduaren 31ko ondare eta finantza egoera, ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazioa eta 2008ko ekitaldi amaierako ekonomi eta ondare egoera, aplikatzekoak diren kontabilitate- eta aurrekontu-printzipioekin bat.

III.2. LEGEZKOTASUNA

Oro har, 2008ko ekitaldian zehar, Arartekoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

## IV.1. 2008KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

### Gastuen kapitulu ekonomikoen arabera

| | Hasierako aurrekontua | Aldak. | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Ordainketak | Ordaintzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 Langileria gastuak | 747.995 | | 747.995 | 596.269 | 596.269 | |
| 2. Ondasun arruntak erostea eta zerbitzuak | 306.890 | 9.874 | 316.764 | 288.813 | 272.268 | 16.545 |
| 4. Transferentzia arruntak | 30.500 | 4.372 | 34.872 | 33.872 | 33.872 | |
| 6. Inbertsio errealak | 116.000 | | 116.000 | 59.184 | 49.759 | 9.425 |
| 7. Kapital transferentziak | 20.000 | | 20.000 | | | |
| 8. Aktibo finantzarioak | 6.000 | | 6.000 | | | |
| 9. Pasibo finantzarioak | 12.375 | -12.275 | 100 | | | |
| **Gastuak, guztira** | **1.239.760** | **1.971** | **1.241.731** | **978.138** | **952.168** | **25.970** |

### Diru-sarreren kapitulu ekonomikoen arabera

| | Hasierako aurrekontua | Aldak. | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko eskubideak | Kobrantzak |
|---|---|---|---|---|---|
| 3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk | 100 | | 100 | | |
| 4. Transferentzia arruntak | 1.085.135 | | 1.085.135 | 1.085.135 | 1.085.135 |
| 5. Ondarezko diru-sarrerak | 150 | | 150 | 41 | 41 |
| 7. Kapital transferentziak | 151.877 | | 151.877 | 151.877 | 151.877 |
| 8. Aktibo finantzarioak | 2.398 | 1.971 | 4.369 | | |
| 9. Pasibo finantzarioak | 100 | | 100 | | |
| **Diru-sarrerak, guztira** | **1.239.760** | **1.971** | **1.241.731** | **1.237.053** | **1.237.053** |

## IV.2. 2008KO ABENDUAREN 31KO EGOERA-BALANTZEA

### AKTIBOA

| Kontzeptua | 2008 | 2007 |
|---|---|---|
| **A) IBILGETUA** | **693.804** | **675.840** |
| **IBILGETU MATERIALA** | **664.089** | **645.124** |
| Eraikinak eta bestelakoak | 403.450 | 401.942 |
| Makinak, instalazioak eta tresneria | 41.746 | 38.080 |
| Altzariak eta tresneria | 103.861 | 89.111 |
| Informazioa prozesatzeko tresneria | 75.352 | 69.722 |
| Bestelako ibilgetu materialak | 39.680 | 46.269 |
| **IBILGETU EZ-MATERIALA** | **29.715** | **30.716** |
| Aplikazio informatikoak | 29.715 | 30.716 |
| **D) AKTIBO ZIRKULATZAILEA** | **294.482** | **251.580** |
| **ZORDUNAK** | **189** | **0** |
| Administrazio publikoak | 22 | 0 |
| Beste zordun batzuk (aplikatzeke dauden ordainketak) | 167 | 0 |
| **KONTU FINANTZARIOAK** | **294.293** | **251.580** |
| Kutxa | 940 | 570 |
| Bankuak eta kreditu-erakundeak | 293.353 | 251.010 |
| AKTIBOA, GUZTIRA | **988.286** | **927.420** |
| Harturiko abalak | 484 | 484 |

### PASIBOA

| Kontzeptua | 2008 | 2007 |
|---|---|---|
| A) FUNTS BEREKIAK | **693.804** | **677.811** |
| ONDAREA | 693.804 | 675.840 |
| B) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK. | **294.482** | **249.609** |
| AITORTUTAKO OBLIGAZIOETAKO HARTZEKODUNAK | 25.970 | 46.042 |
| ZORRAK ENTITATE PUBLIKOEKIN | 268.512 | 203.567 |
| PASIBOA, GUZTIRA | **988.286** | **927.420** |
| Abal-emaileak | 484 | 484 |

IV.3. 2008KO ABENDUAREN 31KO EMAITZEN KONTUA

2008ko ekitaldiko emaitza arrunten kontua

| | 2008 | 2007 | | 2008 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| GASTUAK | 961.217 | 1.086.020 | DIRU-SARRERAK | 1.238.097 | 1.555.723 |
| **Zerbitzuen funtzionamendu gastuak eta gizarte prestazioen gastuak** | **895.236** | **868.466** | **Ohiko kudeaketako beste sarrera batzuk** | **41** | **186.410** |
| Langile-gastuak | 596.269 | 541.085 | Entitatearentzat eginiko lanak | 0 | 186.381 |
| Beste gastu batzuk, kudeaketa dela eta | 298.967 | 327.381 | Beste interes eta antzeko diru-sarrerak | 41 | 28 |
| **Transferentziak eta dirulaguntzak** | **33.871** | **209.361** | **Transferentziak eta dirulaguntzak** | **1.237.011** | **1.244.510** |
| Transferentzia arruntak | 33.871 | 23.033 | Transferentzia arruntak | 1.085.135 | 1.088.954 |
| Kapital-transferentziak | 0 | 186.327 | Kapital-transferentziak | 151.877 | 155.556 |
| **Ezohiko galerak eta gastuak** | **32.110** | **8.194** | **Ez-ohiko irabazi eta diru-sarrerak** | **1.044** | **124.803** |
| Ibilgetutik heldu diren galerak | 19.336 | 8.194 | Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrera eta irabaziak | 1.044 | 124.803 |
| Beste ekitaldi batzuetako gastu eta galerak | 12.774 | 0 | | | |
| AURREZKIA | 276.880 | 469.702 | DESAURREZKIA | | |

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 8an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

# Nafarroako Parlamentuaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Parlamentuaren kontu orokorrari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Nafarroako Parlamentuaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Helburua eta norainokoa (24. or.).

**II.** Iritzia (24. or.).

**III.** 2008ko kontu orokorraren laburpena (25. or.).

III.I. 2008ko gastuen eta diru-sarreren aurrekontuaren likidazioa (25. or.).

III.2 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (26. or.).

III.3. diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2008ko abenduaren 31n (26. or.).

III.4. 2008ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (27. or.).

III.5. 2008ko emaitzen kontua (28. or.).

### I. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2009ko martxoaren 2an hartutako erabakia betez eta Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/2002 Foru Legean xedatuarekin bat, Nafarroako Parlamentuaren 2008ko kontu orokorrei buruzko txostena –aholku ematekoa– egin dugu.

Lanaren ardatza, egindako eskaria betez, kontu hori osatzen duten finatzen egoera-orri nagusiak arrazoizkoak eta koherenteak diren aztertzea izan da, bai eta haien dokumentu-euskarriak eta ziurtagiriak aztertzea ere.

Metodologia gisa, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta inguruabarren arabera eta eskariaren helburuei berariaz erreparatuta beharrezkotzat jo ditugun prozedura teknikoak erabili ditugu.

Azterketa lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako talde batek egin du, 2009ko maiatzean. Era berean, Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Parlamentuko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

### II. IRITZIA

Egindako eskariari jarraituz, Nafarroako Parlamentuaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Haren prestaketa eta edukiak Parlamentuaren ardura dira, eta modu laburtuan aurkezten da txosten honetako III. atalean.

Gure ustez, Nafarroako Parlamentuaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen du, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreren aurrekontuaren likidazioa eta abenduaren 31ko ondare-egoera. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz.

Orobat, 2008ko ekitaldian zehar, Nafarroako Parlamentuaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

Iruñean, 2009ko ekainaren 17an

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

III.I. 2008KO GASTUEN ETA DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

## GASTUAK, 2008

| Kontzeptua | Hasierako aurrekontua | Aldaketak | Aurrekontu bateratua | Aitorturiko betebeharrak | Betetzearen % | Ordaindutakoa, % | Ordaintzeke dagoena | Kreditu gerakina |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 6.719.517,00 | 66,00 | 6.719.583,00 | 6.106.193,80 | 90,87% | 6.106.193,80 | 0,00 | 613.389,20 |
| 2. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan | 2.444.540,00 | 12.322,04 | 2.456.862,04 | 1.611.281,97 | 65,58% | 1.515.655,76 | 95.626,21 | 845.580,07 |
| 4. Transferentzia arruntak | 2.767.296,00 | 6.300,00 | 2.773.596,00 | 2.586.792,04 | 93,26% | 2.585.470,92 | 1.321,12 | 186.803,96 |
| 6. Inbertsio errealak | 786.905,00 | 121.143,94 | 908.048,94 | 266.863,38 | 29,39% | 256.972,82 | 9.890,56 | 641.185,56 |
| 8. Aktibo finantzarioak | 55.737,00 | 924,88 | 56.661,88 | 33.297,36 | 58,77% | 33.297,36 | 0,00 | 23.364,52 |
| 9. Pasibo finantzarioak | 130.745,00 | -3.690,88 | 127.054,12 | 2.978,03 | 2,34% | 2.978,03 | 0,00 | 124.076,09 |
| **Gastuak, guztira** | **12.904.740,00** | **137.065,98** | **13.041.805,98** | **10.607.406,58** | **81,33%** | **10.500.568,69** | **106.837,89** | **2.434.399,40** |

## DIRU-SARRERAK, 2008

| Kontzeptua | Hasierako aurrekontua | Aldaketak | Aurrekontu bateratua | Aitorturiko eskubideak | Betetzearen % | Kobratutakoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk | 7.908,00 | 0,00 | 7.908,00 | 54.720,05 | 691,96% | 54.720,05 |
| 4. Transferentzia arruntak | 11.863.445,00 | 0,00 | 11.863.445,00 | 11.863.445,00 | 100,00% | 11.863.445,00 |
| 5. Ondarezko diru-sarrerak | 60.000,00 | 0,00 | 60.000,00 | 192.489,46 | 320,82% | 192.489,46 |
| 7. Kapital-transferentziak | 942.776,00 | 0,00 | 942.776,00 | 942.776,00 | 100,00% | 942.776,00 |
| 8. Aktibo finantzarioak | 30.010,00 | 137.065,98 | 167.075,98 | 44.503,69 | 26,64% | 44.503,69 |
| 9. Pasibo finantzarioak | 601,00 | 0,00 | 601,00 | 795,96 | 132,44% | 795,96 |
| **Diru-sarrerak, guztira** | **12.904.740,00** | **137.065,98** | **13.041.805,98** | **13.098.730,16** | **100,44%** | **13.098.730,16** |

## III.2 2008KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA

| Kontzeptuak | Aitorturiko eskubide garbiak | Aitorturiko betebehar garbiak | Zenbatekoak |
|---|---|---|---|
| 1. Eragiketa ez-finantzarioak (1-7 kapituluak) | 13.053.430,51 | 10.571.131,19 | 2.482.299,32 |
| 2. Eragiketak finantza-aktiboekin (8. kapitulua) | 44.503,69 | 33.297,36 | 11.206,33 |
| **I. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (1+2)** | **13.097.934,20** | **10.604.428,55** | **2.493.505,65** |
| **II. Finantza-pasiboen aldaketa garbia (9. kapitulua)** | **795,96** | **2.978,03** | **-2.182,07** |
| **III. Ekitaldiko aurrekontu saldoa.(I+II)** | **13.098.730,16** | **10.607.406,58** | **2.491.323,58** |
| 1. (+) Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak | | | 137.065,98 |
| 2. (-) Finantzaketako desbideraketak (deusezteak) | | | 0,00 |
| **IV. EKITALDIKO FINANTZAKETAREN SUPERABITA EDO DEFIZITA (III+1+2)** | | | **2.628.389,56** |

## III.3. DIRUZAINTZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2008KO ABENDUAREN 31N

| | Kontzeptuak | Zenbatekoak | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 2007 | | 2008 | |
| 1. | **(+) Kobratzeko dauden eskubideak** | | **2.644,31** | | **1.821,77** |
| | (+) ekitaldiko aurrekontukoak | 0,00 | | 0,00 | |
| | (*) itxitako aurrekontuetakoak | 0,00 | | 0,00 | |
| | (+) aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak | 2.644,31 | | 1.821,77 | |
| | (+) merkataritzako eragiketetakoak | 0,00 | | 0,00 | |
| | (-) kobratzeko zailak | 0,00 | | 0,00 | |
| | (-) egindako kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak | 0,00 | | 0,00 | |
| 2. | **(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak** | | **2.956.365,51** | | **2.487.667,40** |
| | (+) ekitaldiko aurrekontukoak | 85.641,43 | | 106.837,89 | |
| | (*) itxitako aurrekontuetakoak | 0,00 | | 0,00 | |
| | (+) aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak (1. oharra) | 2.870.859,77 | | 2.380.829,51 | |
| | (+) merkataritzako eragiketetakoak | 0,00 | | 0,00 | |
| | (-) egindako ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak | -135,69 | | 0,00 | |
| 3. | **(+) Funts likidoak (kutxan eta bankuetan)** | | **3.094.392,51** | | **2.812.095,29** |
| I. | Atxikitako diruzaintzako gerakina | | 137.065,98 | | 322.644,33 |
| II. | Aplikatzeko dagoen diruzaintzako gerakina | | 3.605,33 | | 3.605,33 |
| III. | **Diruzaintzako gerakina, guztira** ( 1 -2 +3 ) = I + II ) | | **140.671,31** | | **326.249,66** |

1. oharra: 4760 kontuaren saldoa jasota dago: Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kreditu itzulketa dela eta. 2.803.372 euro 2007-12-31n, eta 2.305.745,23 euro 2008-12-31n.

III.4. 2008KO ABENDUAREN 31KO EGOERA-BALANTZEA

| AKTIBOA | | 2008-12-31ko balantzea | 2007-12-31ko balantzea |
|---|---|---|---|
| | **IBILGETU MATERIALA** | **25.587.762,11** | **25.351.465,23** |
| 2020 | Eraikinak | 22.051.216,69 | 22.051.216,69 |
| 2030 | Makineria, instalazioak eta tresneria | 592.490,76 | 512.872,65 |
| 2040 | Garraio elementuak | 138.326,27 | 138.326,27 |
| 2050 | Altzariak eta tresneria | 1.091.606,17 | 1.068.858,14 |
| 2060 | Informazioa prozesatzeko tresneria | 511.838,86 | 481.652,85 |
| 2080 | Bestelako ibilgetu materialak | 1.202.283,36 | 1.098.538,63 |
| | **IBILGETU EZ-MATERIALA** | **465.869,60** | **437.804,62** |
| 2110 | Ikerketak, azterlanak eta proiektuak | 0,00 | 0,00 |
| 2150 | Aplikazio informatikoak | 465.137,60 | 437.255,62 |
| 2180 | Bestelako ibilgetu materialak | 732,00 | 549,00 |
| | **FINANTZA-IBILGETUA** | **50.387,63** | **57.613,73** |
| 2540 | Epe luzeko maileguak | 50.387,63 | 57.613,73 |
| | **ALDI BATERAKO FINANTZA-INBERTSIOAK** | **20.463,77** | **24.444,00** |
| 5340 | Epe laburreko maileguak | 20.463,77 | 24.444,00 |
| | **APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK** | **0,00** | **135,69** |
| 5500 | Aplikatzeke dauden gastuak | 0,00 | 135,69 |
| | **ZORDUNAK** | **1.821,77** | **2.644,31** |
| 5610 | Aurrekontukoak ez diren beste zordun batzuk | 1.821,77 | 2.644,31 |
| | **FINANTZA-KONTUAK** | **2.812.095,29** | **3.094.392,51** |
| 5700 | Kutxa | 2.019,12 | 1.786,65 |
| 5710 | Finantza erakundeak | 2.800.970,49 | 3.086.840,76 |
| 5711 | Finantza erakundeak | 9.105,68 | 5.765,10 |
| | **AKTIBOA, GUZTIRA** | **28.938.400,17** | **28.968.500,09** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | **ABALAK ETA BERMEAK** | **40.045,27** | **40.987,73** |
| 0520 | Harturiko abalak | 40.045,27 | 40.987,73 |

| PASIBOA | | 2008-12-31ko balantzea | 31-12-07ko balantzea |
|---|---|---|---|
| | **ONDAREA** | **26.125.451,16** | **25.870.113,56** |
| 1000 | Ondarea | 19.424.166,20 | 19.168.828,60 |
| 1070 | Adskribatutako ondarea | 6.701.284,96 | 6.701.284,96 |
| | **BESTELAKO FUNTS BEREKIAK** | **324.101,77** | **138.523,42** |
| 1291 | Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak | 322.644,33 | 137.065,98 |
| 1300 | Aplikatzeke dauden kontusailak | 1.457,44 | 1.457,44 |
| | **EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK** | **106.837,89** | **85.641,43** |
| 4000 | Indardun ekitaldian aitorturiko betebeharretako hartzekodunak | 106.837,89 | 85.641,43 |
| 4010 | Itxitako ekitaldian aitorturiko betebeharretako hartzekodunak | 0,00 | 0,00 |
| | **ZORRAK ENTITATE PUBLIKOEKIN** | **2.380.829,51** | **2.870.859,77** |
| 4760 | Foru Ogasun Publikoa, itzulketa fiskalengatik | 2.305.745,23 | 2.803.376,81 |
| 4770 | Gizarte Segurantza hartzekoduna | 75.084,28 | 67.482,96 |
| | **FIANTZAK ETA GORDAILUAK** | **1.179,84** | **3.361,91** |
| 5200 | Jasotako epe laburreko fidantzak | 1.179,84 | 3.361,91 |
| | **APLIKATZEKE DAUDEN BESTE KONTUSAIL BATZUK** | **0,00** | **0,00** |
| 5550 | Aplikatzeke dauden diru-sarrerak | 0,00 | 0,00 |
| | **PASIBOA, GUZTIRA** | **28.938.400,17** | **28.968.500,09** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | **ABALAK ETA BERMEAK** | **40.045,27** | **40.987,73** |
| 0570 | Abal-emaileak | 40.045,27 | 40.987,73 |

## III.5. 2008KO EMAITZEN KONTUA

| ZOR | | HARTZEKOA | |
|---|---|---|---|
| 6.346.275,69 | Langileen eta parlamentarien gastuak | Salmentak | 2.805,31 |
| 707,70 | Zergak | Diru-sarrera finantzarioak | 192.489,46 |
| 1.370.492,38 | Lanak, hornidurak eta kanp. zerb. | Kapital transferentziak. | 942.776,00 |
| 2.589.293,56 | Transferentzia arruntak | Transferentzia arruntak | 11.863.445,00 |
| **2.746.661,18** | **Aurrezkia (emaitza positiboa)** | Bestelako diru-sarrerak | 51.914,74 |
| **3.053.430,51** | **Zorrak, guztira** | **Hartzekoa, guztira** | **13.053.430,51** |

## Emaitza doitua

| ZOR | | HARTZEKOA | |
|---|---|---|---|
| 2.746.661,18 | Ekonomia- eta ondare-emaitza | ONDAREA (Inbertsio garbi aktibatuak) | -9.024,26 |
| 137.065,98 | Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak | ONDAREA (amaierako aktiboak-pasiboak aldaketa) | 264.361,86 |
| | | **Ondarearen emaitza ekonomiko doitua** | **2.628.389,56** |
| **2.883.727,16** | **Zorrak, guztira** | **Hartzekoa, guztira** | **2.883.727,16** |

## Emaitzaren banaketa

| ZOR | | HARTZEKOA | |
|---|---|---|---|
| 2.628.389,56 | Ekonomia eta ondare-emaitza doitua | Foru Ogasun Publikoa, kreditu itzulketako hartzekoduna. | 2.305.745,23 |
| | | Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak | 322.644,33 |
| **2.628.389,56** | **Zorrak, guztira** | **Hartzekoa, guztira** | **2.628.389,56** |

Inprimatzailea: Ulzama Digital (Iruña).
Lege Gordailua: NA 363-1995
Paper ekologiko birziklatua